

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 635/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena Tuestako Kontzejuarekin hitzarmen bat izenpetzea, kontzeju horren kredituak eta eskubideak betearazte aldian biltzeko

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 8. artikulua lehen paragrafoan xedatzen duenez, udal erakundeek eta foru aldundiak elkarlanean jardungo dute, sinatu beharreko hitzarmena sinatuta, tributuek kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztietan.

Elkarlan edo lankidetzaren printzipio hori Arabako Foru Aldundiaren eta kontzejuen arteko harremanetan ere aplikatuko da, zeren eta kontzejuen ogasunei ere aplikatuko baitaie. Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren II. titulua, halaxe xedatzen baitu martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, 39. artikuluan.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak eta Tuestako Kontzejuak lankidetzaren hitzarmena izenpetuko dute, kontzeju horren kredituak eta eskubideak betearazte aldian biltzeko.

Kontuan hartu da abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 8.7) artikuluan xedatutakoa.

Ikusi da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Haren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Tuestako Kontzejuarekin hitzarmena izenpetzea kontzeju horren kredituak eta eskubideak betearazte aldian biltzeko. Hitzarmen hori erabaki honen eranskinean ageri da.

Bigarrena. Baimena ematea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari aurreko paragrafoan aipatzen den hitzarmena eta hura betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Gasteiz, 2016ko urriaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA